

Enirio- Doniturrietako «txikizioa» salatu dute

Aralar Bizirik plataformak bideo bat argitaratu du mendi bideak 2016 eta 2019 urte artean jasan duen aldaketa salatzen // **3**

Arancha Gonzalezek ministro kargua hartu du

50 urteko legelari tolosarrak atzo egin zion zin Espainiako Atzerri ministro karguari // **3**

Jakak eta Zabaletak lehen postuan jarraitzen dute

Artolak eta Altuna III.ak postu bat egin dute behera Binakako Pilota Txapelketako sailkapenean // **7**



JON MIRANDA

«Ez da egoteko espazio soil bat izango, gazteria dinamizatzen baizik»

IRATXE OLANO GAZTERIA SUSPERTZAILEA

10 eta 16 urte artekoentzat bideratuko den gaztelekuko hezitzailea izango da anoetarra; udaberrian espazioa inauguratu ahal izatea espero du // **4**

Sahararrei laguntzeko janari eta material bilketa

Hilaren amaierara arte bilduko dute udaletxeetan eta ikastetxeetan // **5**

Alegiako udalak kultur eskaintza oparoa prest du

Bihar hasiko da neguko egitaraua, Badut taldeak eskainiko duen ipuin kontaketaekin // **5**

«Agian ez gara inoiz literatur kanonean sartuko jaso dugu»

KATTALIN MINER
IDAZLEA

Bi ikasturte daramatza Tolosako jabetze eskolako literatur tailer feminista gidatzen // **7**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazio guztia:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484

943 69 02 97

Itzea Urkizu Arsuaga

Gozamenetik harago, literatura «zukutzeko» baliatzen ditu, Kattalin Minerrek (Hernani, 1988), gidatzen dituen irakurle talde feministak. Tolosan bigarren ikasturtea osatzen ari dira, eta beretzat «oparia» izaten ari dela dio, adin desberdintasunak taldea aberasten baitu.

Jende gutxi irakurtzen al du euskaraz?

Azken datuek hala diote. Euskarazko kultur kontsumoa igo egin da, musika, zinema eta antzerkian, eta jaitsi literaturan. Literatur munduan buru-belarri gabil-tzanontzako oso ohikoak diren izenak-eta, jende askorentzat ezezagunak dira. Badirudi, askok militantziaz irakurtzen dutela euskaraz, kontuan izan gabe, literatur maila izugarria dugula eta hausnarketarako bide handia dagoela.

Esango zenuke euskal emakume idazleen lana errekonozimendu handiagoa jasotzen ari dela pixkana? Edo ez zaizu hala denik iruditzen?

Duda handiak ditut. Zirkuluaren arabera bai, eta Eider Rodriguezek behingoz Euskadi Saria irabazi izanak, adibidez, laguntzen du. Baina, gaur egun, edozein pertsonari galdetuz gero, zeintzuk diren euskal idazle onenak, segur aski beste izen handi batzuk aterako dira, gizonezkoenak. Horregatik nioen, ezezagutza handia dagoela euskaraz idazten duten emakumeen literatur maila izugarriaren inguruan. Gu ere saiaturako gara bide hori egiten, tailerra horretarako leku ere badelako: guretzako erreferentzialtasuna guk sortzea, zein estilo eta gai gailentzen diren ikustea...

Zein liburu landu dituzue Tolosako taldean?

Eider Rodriguezen *Bihotz handiegiarekin* hasi ginen, eta gero Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*, Miren Amurizaren *Basa*, Alaine Agirrenen *Odol mamituak* eta Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi*

«Guk herentzian jaso dugu, agian ez garela inoiz literatur kanonean sartuko»

KATTALIN MINER IDAZLEA

Hernaniarrak bi ikasturte daramatza, Tolosako lau irakurle taldeetako bat gidatzen: jabetze eskolako literatur tailer feminista.



Kattalin Miner, erdian, Tolosako jabetze eskolako literatur tailer feministan. ITZEA URKIZU

bat irakurri ditugu, batzuk aipatzearen.

Literaturak eragin dezake sozialki, ala alderantziz?

Segur aski zirkulu bat izango da, baina, irakurketa partekatuak egiten ditugunean, niri interesatzen zait aspektu sozial horretatik tiratzea. Azken urteotako literatura oso harreman estuan ikusten dut errealitatearekin, ardura eta kezka handiz. Oso desberdin planteatuta ere, autoretik autorera errepikatzen ari dira gaiak eta niri, irakurle moduan, interesgarri suertatzen zait hori. Gainera, irakurketa feministak literaturaren bidez egiten ditugunean, eta ez saiakeraren

bidez, uste dut hartzailearengan beste modu batera sartzen direla edukiak edo kontzeptuak.

Tolosan lau irakurketa talde daude. Baina, zer egiten da literatur tailer batean?

Dinamizatzaile bakoitzak bere estiloa dauka, eta ni literatur talde feministetako alaba naiz: Iratxe Retolaza eta Mertxe Tranche erdugarri izan dira niretzat. Guk liburu bakoitzaren gai nagusiak ateratzen ditugu eta, gero, nik entresaka batzuk proposatzen dizkiet, denon artean hizpide izan ditzagun. Oso hausnarketa interesgarriak ateratzen dira.

Amaitu berri den urtea oparoa

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar da Tolosan. Deitu 688 88 82 07 telefonora, 12:00etatik 14:00etara.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

izan da euskal pentsamendu feministarentzat. Besteak beste, Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* argitaratu dute.

Bai. Egia esan, ikaragarria da 70 urte behar izatea, Simone de Beauvoir euskaraz edukitzeko. Azken urteotan sekulako esfortzua egin da pentsamendu feminista euskarara ekartzeko, eta horrek sekulako aldaketa ekarriko du. Belaunaldi batek klasiko hauek guztiak, eta ez klasikoak, euskaraz irakurri ahal izango ditu. Akademian ere aldaketa ekarriko du, orain arte erdarazko testuekin egin behar baitzen dena. Simone de Beauvoirren obrara itzuliz, bi liburu ki esaldi bakarrean laburbiltzen ditugu: emakume ez da jaiotzen, izatera iristen da. Bada, uste dut, hori bera esaten dugun feministok ere, badugula aukera bat, berriro testua hartu, eta aspaldi irakurritakoak gaur egungo begiradatik ikusteko. Gauza asko ikaragarri aldatuko ziren, baina beste asko bere horretan egongo dira.

Eider Rodriguezen *Idazleen gorputzak* lanak emakume idazleen ahotik deskribatu du, nahiko gordin, euskal literatur sistema. Zuzen identifikatuta sentituzara?

Adinaz harago, badago belaunaldi jauzi bat. Idazle izan aurretik, ni militante feminista izan naiz, eta guk herentzian jaso dugu, agian ez garela inoiz kanonean sartuko. Beharbada, beste belaunaldi batzuetako emakumeei sinetsarazi zieten sar zitezkeela eta, sartzen ez baziren, beren kalitate faltagatik zela. Guk ipuin hori ez dugu sine-tsi, eta ez dugu geure burua hortik epaitzen; beraiek egindako borrokatik askeago gaude. Horrek ez du esan nahi euskal literaturaren egoera feminista denik, ezta gutxiago ere; urte batzuk beharko dira, belaunaldi aldaketa horrek zer uzten duen ikusteko.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa zen kontatzea?

Bai, eta ausardia handia behar da, gauza batzuk izen-abizenik gabe doazelako, baina badakigulako euskal kultur mundua oso txikia dela. Benetan gauza gogorrak kontatu dituzte, eta izendatua sentitzen denak badaki. Nik asko

«Ezezagutza handia dago, euskaraz idazten duten emakumeen literatur maila izugarriaren inguruan»

eskertu dut, bestela, bai baitirudi bide gozoa egin dugula, eta gu eze-rezetik iritsi garela. Genealogiaren oso aldekoa naiz, eta errespetu handia diet bide urratzaile izan diren emakumei.

Zein puntutan ikusten duzu euskal emakume idazleen sorkuntza lana?

Duela pare bat urte arte, bigarren nobela idatzi zuten emakumeak ez ziren dozenara iristen. Ez dakit kantitatea eskatu behar den, baina presentzia bermatu behar dugu, eta emakume idazleek idazten jarraitzeko gogoia eta baldintzak izatea ere bai.

Nola heldu naiz ni honaino eleberraren ondotik, Moio. Gordetzea ezinezkoa zen kazetaritza lana argitaratu zenuen. Nonsentituzara erosoago?

Oso lan desberdinak dira, eta ezin ditut alderatu. Moioarenak utzi samarra nuen kazetaritzan berriro aritzeko aukera eskaini zidan, baina fikziorako gogoia ere badaukat, egia esan.

Eta, proiektu berririk bai esku artean?

Idatzi eta idatzi nabil iaiztik; zerbait idazten ari naizenean, beste zerbaitekin hasten naiz, eta ezin sekula bukatu. Gogoia daukat, ez daukat presarik, eta hori ere ona da: gauzak lasai egitea. Baina bai, uste dut laster eleberriren baten bueltan lanean hasiko naizela.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua



Enirio eta Doniturrieta arteko bidezidorra, 2017. urtean, pista bihurtu aurretik. ATARIA

Enirio-Doniturrieta pistak eragindako «txikizioa» salatu dute

Aralar Bizirik plataformak salatu du lanengatik auzipetutako udal ordezkari ohiek bazekitela obra «ilegala» zela; hilabete honetan deklaratu beharko dute Tolosako epaitegian

Iosu Alberdi Berria

Aralar Bizirik plataformak bideo bat atera du Enirio-Doniturrieta mendi bideak jasaniko aldaketa salatzeko. Bertan, obrek mendi bidean izan duten eragina ageri da, 2016ko eta 2019ko irudiak alderatuta. Horrez gain, obrengatik auzipetuta dauden Enirio-Aralar mankomunitateko udal ordezkari ohiek eginiko prentsaurrekoa gaitzetsi dute.

Ordezkarri ohiek, ENBA eta EHNE sindikatuen babespean, adierazi zuten «mendi bide bat egokitzearen alde bozkatzeagatik» auzipetu dituztela. Aralar Biziriken iritziz, ordea, eremuan egin dena ez da egokitzapen bat, «txikizio bat» baizik: «Lehen 4x4 ibilgailurik pasatzen ez zen tokian hiru-lau metro zabaleko pista bat egin dute, auto atoidun eta kamioientzako modukoa».

Aralarko pisten inguruko lisakarra ez da berria. 2018an hasi zituzten Eniriotik Igaratzara doan bideko obrak. 2,7 kilometroko bidea da, Enirio eta Doniturrietako bordak lotzeko. Orduan jarri zuten Landarlan eta Eguzki plataforma ekologistek obrei baietza eman zieten udal hautetsien aurkako salaketa—EAJko hiru, EH Bilduko bat eta hiru independente; tartean mankomunitateko presidentea—, ingurumenaren eta lurralde antolaketaren aurkako delituak eta prebarikazioa egotzita. Aralar Bizirik plataformak adierazi du eremuetaiko lurra mugitu dutela —debekatuta dago— eta babesturiko zuhaitzak moztu dituztela —haginak eta gorostiak—.

Ordezkarri ohien esanetan, ordea, «erabaki demokratiko batengatik» daude auzipetuta. Ordiziaren kasuan, baina, alkateak

udal batzarreko gehiengoaren aurka eman zien baietza lanei. Halere, «demokratikoki erabaki bazen ere», Aralar Bizirik plataformak adierazi du ez duela errespetatzen parkeko legedia: «Azpiegitura ilegal bat da, eta horrexegatik ari dira epaitegian auzia ikertzen». Gainera, Aralar Bizirik plataformaren esanetan, udal ordezkari ohiak jakitun zeuden 2016an egindako pistaren kontrako salaketa Tolosako (Gipuzkoa) epaitegian ikertzen ari zirela, eta, halere, proiektua aurrera ateratzearen alde egin zuten. «Auzipetuek botoa eman zuten momentuan bazekiten lehen pista proiektua epaitegietan zegoela, legez kanpokoak izan zitekeelako, eta, hala ere, bigarren pistaren aldeko botoa eman zuten». Hilabete honetan deklaratu beharko dute zazpiek, Tolosako epaitegian.

Arancha Gonzalez tolosarrak zin egin dio karguari

50 urteko legelari tolosarra da Espainiako Atzerri ministro berria; atzo hartu zituzten karguak, Madrilén, ministro berriek.

Erredakzioa Tolosa

Pedro Sanchez Espainiako gobernuburuak Arancha Gonzalez Laya (Tolosa, 1969) legelaria aukeratu du Espainiako Atzerri ministro kargurako. Atzo egin zioten karguari zin gobernu berriko ministroek, eta Gonzalezek, ministro kartera hartu bezain pronto egindako adierazpenetan, «Spain is back. Spain is here to stay» (Espainia itzuli egin da eta geratzeko iritsi da), esan zuen. Ingelesekin esan zituen hitz horiek mundu guztiak ulertzen zituzten.

Bere lan ardatz nagusia «nazioartean Espainiak merezi duen lekua berreskuratzea»

izango dela aipatu zuen, eta «bakearen, pertsonen, oparotasunaren eta planetaren alde» lan egingo duela «konplexurik gabe», gaineratu zuen.

Azken urteetan NBERen idazkari nagusiordea izan da tolosarra, baita ITC Nazioarteko Merkataritza Zentroko zuzendaria ere. Hainbat lan egin izan ditu Europako Batzordean, nazioarteko harremanetan, merkataritzan, komunikazioan zein garapenerako lankidetzan.

Zuzenbidean graduatua da, Nafarroako Unibertsitatean. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, italieraz, alemanez eta ingelesez daki.



Arancha Gonzalez, atzo goizean, ministro kargu berriari zin egiten. EFE

Joxepi Ibarbia tolosarra hil da, amiantoaren erruz

Erredakzioa

Joxepi Ibarbia tolosarra hil zen pasa den astean, amiantoaren erruz. Ibarbiak Berrobiko paper fabrika egin zuen lan 1955 eta 1963 urteen artean eta pasa den abuztuan amiantoarekin harremanetan lan egiteak gaixotasuna eragin ziola ebatzi zuen Osa-

lanek. Ondorioz, gizarte segurantzak ezintasun osoa aitortu eta pentsioa igo zion.

Jatorriz berastegierra zen Ibarbia eta Tolosan bizi zen. Duela 50 urte baino gehiago, 14 urte zituela hasi zen lanean Berrobiko paper fabrika. 2020an hego Euskal Herrian amiantoagatik hil den bigarren langilea da.

Jon Miranda Anoeta

Herriko gazteak enplegatzeke ateratako deialdi bat baliatu du Anoetako Udalak, eta honenbestez, urtebetez ariko da Iratxe Olano (Anoeta, 1997) gazteria suspertzaile bezala lanean. Gazteriaren ardura izango du udalean eta etorkizunean gaztelekuan hezitzaile bezala ariko da. Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen sustapenerako Gaztematika zerbitzuaren aholkularitza ari da jasotzen.

Herri gaztea al da Anoeta?

Bai, gazte dezente dago. Kontuan hartu behar da Irurako ikastolan aritu ondoren, DBH egitera Anoetako Herri Ikastolara etortzen direla irurarrak. Gazteria indartsu dago herrian.

Gazteria guztiaren ardura izango duzu. Gaur egun zein azpiegitura dituzte gazteek herrian?

Anoetan txikientzako, 0 eta 5 urte bitartekoentzat, haur txokoa dago. DBHko laugarren mailatik gorakoak gaztetxera jotzen dute eta tartekoentzat, 10 eta 16 urte artekoentzat jarri nahi dugu martxan zerbitzu berria, gaztelekua.

Ez da orain oraingoa Anoetan gazteleku bat sortzeko asmoa?

Hori erabakitzeko prozesua duela urte batzuk abiatu zen. Herriko gazte batzuk ikerketa bat egin zuten nerabeen beharren inguruan eta han azaldu zen bilgune baten beharra zutela gazteek. Nik Tolosaldean dauden gaztelekuak ikertu ditut azkeneko aste hauetan eta Ibarra, Zizurkil eta Alegian izan naiz, orain arte. Horrekin batera, garrantzitsua iruditzen zitzaidan ikastolarekin zuzeneko harremana edukitzea etorkizuneko gaztelekuko erabiltzaileak bertan ibiltzen direlako.

Nik nahiko nuke gaztelekua udalak nerabeen eskura jarri duen espazioa izatea, nerabeek beraiek euren erara antolatu eta moldatuko dutena, beti ere, bertan ariko den hezitzailearen laguntzaz. Denek batera sortutakoa izatea gustatuko litzaidake. Udalak nerabeek erabiltzeko zerbitzu bat jarriko du martxan baina ez da egoteko toki soil bat izango. Espazioa bera tresna bat izango da gazteria dinamizatzeke.

Non egongo da kokatuta?

Iturburu kaleko babes ofizialeko etxebizitzaren etxeban dauden lokaletako batean egongo da gaztelekua. Liburutegia, KZ Gunea, ikasteko gela eta balio anitzeko gelaren aldamenean dago kokatuta. Kulturgune moduko batean integratuta egongo da.

Nahikoa toki badagoea uste duzu?

«Gaztelekua denek batera sortutakoa izatea gustatuko litzaidake»

IRATXE OLANO GAZTERIA SUSPERTZAILEA

Anoetan 10 eta 16 urte artekoentzat espazioa izango da gaztelekua; Asteotan nerabeekin beraiekin bilduko da teknikaria, proiektu honek izan behar dituen balore, printzipio eta helburuak adosteko.



JON MIRANDA

«Ez da egoteko toki soil bat izango. Espazioa bera tresna bat izango da gazteria dinamizatzeke»

Ba, bi espazio ezberdindu daude. Badu gela bat bestea baino txikiagoa dena, eta hasiera batean, gela handiago horretan zentratuko ginateke. Txikia irekita egongo da eta behar denetan erabiliko genuke, baina oraingoz ekipamendu guztia espazio handiago horretara bideratuko dugu. Kanpo espazio bat ere badugu gaztelekuaren atzealdean, belaze moduko bat da eta aukera bat bezala ikusten dugu. Hala ere, dena zabalik dago. Gustatuko litzaziguke nerabeek beraiek lidergoa hartzea eta haiek udalean proposatzea zein proiektu garatu nahi dituzten.

Izan al duzu lehenengo harremana nerabe horiekin?

Bai. Ikastolaren bitartez galdetegi bat luzatu nien 10 eta 16 urte arteko nerabeei. Izan ere, printzipioz,

LHko 5. mailatik DBHko 4. mailara bitartekoei eskainiko zaie zerbitzua. Gero ikusiko da gazteagoei zabaltzeko aukera ote dagoen. Antolamenduaz, ordutegiaz eta herri mailan antolatu daitezkeen ekintzez galdetu nien inkesta horretan.

Eskaera asko luzatu dituzte gazteek?

Gehienbat sofa, mahai futbola, ping-pong eta horrelako jokoak eskatzen dituzte. Nik esaten diet eskatzea libre dela, baina aldi berean guztiok argi eduki behar dugula gaztelekua printzipio eta balore batzuetan oinarritzen dela. Beraz, uneoro kontuan hartu behar dugu ekipamendua edo antolatzen ditugun ekintzak balio horietara egokitzen ote diren edo ez. Erabaki horiek erabiltzaile izango diren nerabeek hartu behar dute eta gu saiatuko gara haien sormena bultzatzen. Adibidez, sofak eskatzen badituzte, zergatik ez nerabeak bultzatu egur taulak, zerra, iltzeak hartu eta sofak egitera?

«Espazio seguru bezala bizi dezatela gaztelekua. Euren garapenerako funtsezkoa izango da»

Sormena bultzatzea, alde batetik, baina hezitzaile gisa zein beste balore bultzatuko dituzu?

Gazteak, adin horretan dagoeneko kontziente dira egiten dutenaz eta edozein lekutan errespetatu beharreko arau minimoak zeintzuk diren jakin badakite. Nik ez nuke polizia lanetan ibili nahi. Alderantziz, hezitzaile bezala balore batzuk transmititu nahi nizkieke gazteei: errespetua, komunikazio egokia eta baita enpatia ere.

Horrekin batera azpimarratu nahi nuke zaintza, arlo askotatik begiratuta gainera: naturarena, ingurunearena, materialena eta pertsonena, tartean norberaren zaintza ahaztu gabe. Garrantzitsua iruditzen zait norberaren konfiantza eta autoestimua lantzea, ibili gabe beti besteen ones-

pen bila. Egiten dutena eginda ere, ondo eginda dagoenaren ziurtasuna eduki dezatela gazteek, espazio seguru bezala bizi dezatela gaztelekua. Euren garapenerako funtsezkoa izango da hori.

Ondo pasatzeko tokia bat izango da gaztelekua?

Bai. Ondo pasatzeko tokia, eta aldi berean, heziketa toki bat izango da, ez formala, baina heziketa gune bat, azken batean. Gu beti abiatuko gara nerabeen interresetatik eta ez da arau finko eta sakraturik izango. Etengabe negoziatu eta aldatzen joango den espazio bat izango da.

Nerabeekiko ikuspegi ezkorra izaten dugu, sarritan.

Egia da. Kontuan izan trantsizio garaia dela. Haur izatetik heldu izatera pasatzen da pertsona eta eraldaketa horretan nerabeak behar du erabakimena eta autonomia. Prozesu hori gazteek bakarrik egin behar dute, baina garrantzitsua da helduon laguntza jasotzea aro hori behar bezala bideratzeko.

Gurasoen laguntza ere bai, tartean...

Bai, hasiera batean gutun bat luzatuko diegu eta gaztelekuaren balore, printzipio eta helburuak jakinaraziko zaizkie. Gurasoek nola parte hartu dezaketen ere pentsatu beharko genuke, proiektu honetan haien presentzia bermatzea beharrezkoa ikusten baitugu. Gazte aktiboak sortzeaz ari gara hizketan, baina horretarako helduok izan behar dugu erreferente. Guraso aktiboak izatea ondo legoke, beraz. Ez du esan nahi gaztelekuan bueltaka ibili behar dutenik, baina presente egon beharko lukete, nolabait.

Adinaren arabera banatuko duzue gaztelekuaren erabilera?

Asteazkenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara eta larunbata eta igandetan 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Nerabeek ere ondo ikusi dute. Galdetu zaie, baita ere, adinaren arabera ordutegiak banatzea ondo ikusiko ote luketen. Baiezkoa erantzun dute eta proposatu dute ikasturteak binaka banatzea eta horren arabera antolatzea erabilera. Egunotan nerabeekin beraiekin bilduko naiz gaztelekuan bertan eta kontu horiek guztiak adostuko ditugu.

Noizko egongo da zabalik?

Ez dugu data zehatzik. Prozesu luzea da, eta berez, ez da inoiz amaituko, etorkizuneko aldaketetara egokitu beharko dugulako gaztelekua aurrerantzean ere. Espero dugu, hala ere, udaberrian espazioa inauguratu ahal izatea.

Denetik eta denentzat, ohi bezala

Bihar Alegiako Udalaren Neguko Kultur eskaintza ipuin kontalariarekin hasiko da, eta apirilera arte luzatuko da egitaraua

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Tradizioa, musika, literatura, kirola, antzerkia, dokumentala,... guztia bildu du Alegiako Kultura batzordeak, eta neguko kultur eskaintza prest du herritarrentzako. Bihar hasiko dira ekitaldiak Badut taldearen ipuin kontaketarekin, baina ez da bakarria izango. Lur Usabiaga eta Xabier Terronesek ere ipuin kontaketak eskainiko dituzte.

Musikak ere bere tarteaz izango du. Hasteko, Loatzo musika eskolako pianoko ikasleek kontzertua eskainiko dute, eta bestetik, martxoaren 6an, Amak talde sortu berriak kontzertua eskainiko du. Antzerkia ere izango da, eta kasu honetan, *Erradikalak ginen* ikusteko aukera izango da; Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal antzerkilaria izango dira oholztan ariko direnak. Tradizioari eutsiz Agate Deunaren

bezperan kantuan girotu dute herria; goizez eskolako haurrak ibiliko dira, eta arratsaldean Txintxarri abesbatzako ahots eta makilek jarriko diote doinua herriari.

Kirola egiteko aukera ere izango da Alegiako Mendi Asanbladak antolatutako bi mendi irteerekin. Eta rakestisten historia ezagutu ahal izango dute martxoaren 27an eskainiko duten dokumentalarekin, eta osteko mahai inguruarekin.

BI HITZALDI

Lehen hitzaldia mendiari lotutakoa izango da hilaren 28an, eta Euskal Mendizale Federaziokoak prebentzioari eta mendiko segurtasunari buruz ariko dira, prestakuntza eman nahian. Martxoaren 11n, hondakinen gainean ariko da Maddalen Diaz, eta plastikorik sortu gabe bizitzeko hautua azalduko die bertaratuei.



Amak musika taldeak martxoaren 6an eskainiko du kontzertua, Elizpe zineman, 22:00etan. ATARIA

NEGUKO KULTUR EGITARAUA

Bihar, urtarrilak 15

17:00. Ipuin kontalaria, Badut taldearen eskutik, liburutegian.

Urtarrilak 24, ostirala

19:30. Loatzo musika eskolako ikasleek piano kontzertua izango da, kultur etxeko batzar aretoan.

Urtarrilak 26, igandea

Mendi irteera egingo dute Erlo-Xoxotera, Alegiako mendi asanbladak antolatuta.

Urtarrilak 28, asteartea

18:30. Prebentzioari eta mendiko segurtasunari buruzko prestakuntza saioa hitzaldia izango da, kultur etxeko batzar aretoan, Euskal Mendizale Federazioaren eskutik.

Otsailak 4, asteartea

11:30. Agate Deunaren bezpera dela

eta, Herri Eskolako haurrak kantari eskolan eta plazan.

19:00. Txintxarri abesbatza kantari Agate Deunaren bezperan.

Otsailak 13, osteguna

17:00. Ipuin kontaketa Lur Usabiagaren eskutik, liburutegian.

Otsailak 14, ostirala

22:00. Erradikalak ginen antzezla, Elizpe zineman.

Otsailak 23, igandea

Inauterietako zahagiardoa egingo dute, plazan.

Martxoak 6, ostirala

22:00. Amak taldearen kontzertua, Elizpe zineman.

Martxoak 8, igandea

Emakumearen Nazioarteko Eguna.

Martxoak 11, asteazken

18:00. Plastikorik sortu gabe nola bizi hitzaldia izango da, Maddalen Diazen eskutik, kultur etxeko batzar areto nagusian.

Martxoak 18, asteazkena

17:00. Xabier Terronesek eskainitako ipuin kontaketa, liburutegian.

Martxoak 27, ostirala

22:00. Raketistak lehen eta orain, dokumentalaren proiektzioa eta mahai ingurua, Elizpe zineman.

Martxoak 29, igandea

Mendi irteera egingo dute Aralarko Guardetxetik Larraitzera, Alegiako Mendi Asanbladak antolatuta.

Apirilak 3, ostirala

22:00. Sutarri dantza taldearen emanaldia, Elizpe zineman.

Janari eta material bilketa, sahararrengatik

E. Maiz Tolosaldea

Urte hasiera guztietan egiten duen moduan, Tolosaldea Sahararekin elkarteak janari eta material bilketa egingo du hilabete honetan. Helburua Saharar herriarekiko elkartasuna da. Saharar herria azken 43 urtetan zatiturik aurkitzen da: batzuk, saharar errefuxiatu kanpalekuetan bizirautean dute, beste batzuk, lurralde okupatuan –Marokoko erregimenak okupaturik duen Mendebaldeko Saharan– eta beste batzuk, lurralde askatuetan –Frente Polisarioaren eskutik dagoen lur zatian–. «Ezin ahaztu ditzakegu diasporan bizi diren sahararrak ere», azpimarratu dute elkartetik.

Guztiek behar dutela laguntza adierazi dute, eta, hain justu ho-

rretarako sortu zuten Tolosaldea Sahararekin elkarteak, 2000. urtean, sahararrei laguntzeko.

Urte guzti hauetan proiektu ugari jarri dituzte martxan, eta horietako bat da janari eta material bilketa: «Gure urteroko helburua ahalik eta produktu gehien jasotzea da. Tolosaldeko biztanle bakoitzak kilo bat emango balu aukera ikaragarria izango litzateke». Horretarako eskualdeko elkarte eta eragile ezberdinen laguntza behar izaten dute. Ikastetxe guztietan, herri txikietako udaletxeetan edota azken urteetan jarri dituzten ohiko tokietan bilduko dute materiala.

Aurten hauek izango dira bilduko diren gauzak: lekaleak, hegaleak eta sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, olioak,



Altzoko eskolak 350 euro lortu ditu Tolosaldea Sahararekin elkartearentzat. E.M.

konpresak, eta haurrentzat eta helduentzako pixoiak. Baita eskolako materiala ere, hau da, koadernoak, arkatzak, borragomak, txorroskiloak... Bilketa honek urtarrilaren 31ra arte iraun-

go du: «Bildutako guztia elkarteak bildu, antolatu eta Donostiara eramango dugu otsaila bukatu Sahararantz aterako baitira aurten Gipuzkoa guztian bilduko diren produktuak».

Elkartasun bilketak, Oporrak Bakean haurren harrera programa, Maiatza Borrokan jardunaldiak... urtean zehar egiten dituzten ekimenak dira. «Guretzat garrantzitsuenetako bat azken urte hauetan Saharako Lurralde Askatuetan Midyick herrian aurrera eramanez dugun proiektua izan da: 140 ikasleentzako lehen hezkuntzako ikastetxe bat eraiki eta mantentzea, eta 200 kilometroko distantzian dagoen anbulatorio bakarria eraiki eta mantentzea dira», adierazi dute.

Bestalde, iazko urte amaieran, Altzoko eskolak herrian egindako azokan 350 euro lortu zituen. Tolosaldea Sahararekin elkarteak bideratu zuten dirua Gabonetako oporren aurretik. Elkarteak, udan, Saharatik haur bat ekartzeko baliatuko du diru hori.

KIROL EMAITZAK

Aretoa futbola

BIGARREN B MAILA

16. jardunaldia

Laskorain	–	Guardo Deporçyl	1–4
Juv. del Circulo	–	Lauburu	3–5

Sailkapena

1. Otxartabe	35p
2. Auzoak de Zierbena	35p
7. Lauburu Ibarra	24p
9. Laskorain	20p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (7)	–	Castro Urdiales (16)
Tafatrans (6)	–	Laskorain (9)

GIPUZKOAKO SENIOR MAILA

8. jardunaldia

TEEP Sam. Orixe	–	Tolosala	6–0
Sanpedrotarra	–	Anoeta	5–1
Laskorain	–	Eguzki–Garoa tab.	7–3

Sailkapena

4. Anoeta	10p
5. Laskorain	10p
8. TEEP Samaniego Orixe	4p
9. Tolosala Orbela Taberna	0p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala (9)	–	Sanpedrotarra (2)
Anoeta (4)	–	Idiazabal (3)
Laskorain (5)	–	Eskoraitza (6)
Ordizia (1)	–	Samaniego Orixe (8)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

15. jardunaldia

Romo Indupime	22
Tolosala Eskubaloia	21

Sailkapena

13. Tolosala Eskubaloia	11p
14. Urduliz Eskubaloia	11p
15. Egia Kopidin	9p

Hurrengo jardunaldia

EI Pilar Maristas (9)	
Tolosala Eskubaloia (13)	

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

14. jardunaldia

Itaroa Huarte	–	Tolosa CF	0–0
---------------	---	-----------	-----

Sailkapena

1. Bizkerre	34p
11. Mulier	13p
12. Tolosa CF	13p
13. Logroño B	11p
14. Itaroa Huarte	5p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (12)	–	Osasuna B (9)
----------------	---	---------------

HIRUGARREN MAILA

20. jardunaldia

Tolosa CF	–	Cul. de Durango	2–2
-----------	---	-----------------	-----

Sailkapena

1. Vitoria	40p
15. Tolosa CF	22p
16. Real Sociedad C	20p
17. Urduliz	19p
18. Cultural de Durango	18p
19. Deusto	18p
20. Ariznabarra	12p

Hurrengo jardunaldia

Gernika Club (6)	–	Tolosa CF (15)
------------------	---	----------------

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

15. jardunaldia

Zumaiaiko	–	Tolosa CF	1–5
-----------	---	-----------	-----

Sailkapena

1. Leintz Arizmendi	43p
2. Tolosa CF 'B'	37p
3. Intxaurdi	32p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (2)	–	Urnieta (11)
---------------	---	--------------

ERREGIONAL PREFERENTEA

15. jardunaldia

Danena	–	Aloña Mendi	0–2
Idiazabal	–	Billabona KE	0–1
Getariako K.	–	Tolosa CF 'B'	1–0

Sailkapena

4. Billabona KE	28p
7. Danena	21p
16. Tolosa CF 'B'	9p

Hurrengo jardunaldia

Danena (7)	–	Ikasberri (8)
Getariako K. (9)	–	Billabona KE (4)
Aretxabaleta (15)	–	Tolosa CF 'B' (16)

LEHEN ERREGIONALA

16. jardunaldia

Intxurre	–	Urola	5–1
----------	---	-------	-----

Sailkapena

4. Intxurre	23p
-------------	-----

GORENGO MAILA

14. jardunaldia

Intxurre	–	atsedena	
----------	---	----------	--

Sailkapena

5. Intxurre	15p
-------------	-----

Saskibaloia

GIZONEZKOEN 1. MAILA

11. jardunaldia

Redline Mekanika TAKE	49
Disdira Bitxitegia	53

Sailkapena

1. Urgatzi	9–1
6. Redline Mekanika TAKE	5–5

Hurrengo jardunaldia

Fundacion Bilbao Basket (11)	
Redline Mekanika TAKE (6)	

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

8. jardunaldia

Ordizia	–	TAKE	22–42
---------	---	------	-------

Sailkapena

1. Atletico San Sebastian	7–1
6. TAKE	5–3

Hurrengo jardunaldia

Antigua–Luberri (3)	–	TAKE (6)
---------------------	---	----------



Igandean jokaturako etorkizuneko mailako partidaren une bat. AGERREMEDIA.COM

Finalerdiak zehaztuz doaz Ogi Berri Txapelketan

Azken jardunaldian, nagusietan Muruak eta Elizegik, eta juvenil mailan Lizeaga anaiek egin dute aurrera

Erredakzioa Tolosa

Pixkana Migel Soroa Oroimenezkoaren Ogi Berri Txapelketaren finalerdietara pasako diren bikoteak zehazten ari dira. Igande arratsaldean beste hiru partida jokatu ziren Beotibar pilotalekuan, eta nagusien mailan izandako emaitzaren ondoren, Ander Murua eta Iker Elizegi finalurrekoetara pasa dira. Bertan dira dagoeneko Eneko Labaka eta Xabier Telleria, eta Oian Canabal eta Joseba Aldave.

Txapelketan orain arte ikusi den partida onena izan zen, hain justu, nagusien mailakoa. Muruak eta Elizegik 22-21 irabazi zioten Espinal eta Aitor Elizegiri. Oso parekatua izan zen partida; urdinek izan zuten abantaila handiena, 11-15 jarri zirenean. Espinalak erakustaldia eman

zuen erremateak egiterakoan, eta guztira 14 tanto egin zituen. Baina ez zen nahikoa izan, Murua ere ondo aritu baitzen.

Etorkizunekoan mailan, Julen Alberdi eta Mikel Etxeberriak 22-16 irabazi zioten Jorge Fernandez eta Ekain Etxeberriari. Oso partida gogorra izan zen eta 560 pilotakada baino gehiago eman ziren. Gorriak oso azkar joan ziren aurrera markagailuan, Alberdi zizurkildarrak hamar tanto egin baitzituen eta akats bakarra. 12-4 irabazten zihoazela guztiak oso garbi zirudien, baina urdinak 16-11 eta 18-14 gerturatu ziren. Halere, bi bikote hauek ez dute aurrera egingo, beraien multzotik Josu Olaetxea eta Ander Garmendia joango baitira finalerdietara.

Jubenilen mailan, Astigarra-gako Lizeaga anaiek aurrera egingo dute finalerdietara igaroz, Intxurreko Altunari eta Etxebarria bizkaitarrari 22-13 irabazi eta gero. Zubeldia-Elosegi, Hormaetxe-Sudupe, eta Alonso-Ugartemendia dira finalerdietan dauden beste bikoteak.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Postu bat galdu dute Artolak eta Altuna III.ak



Altuna III.ak ez du jokatu azken jardunaldian, lesio batengatik. JOSU ARTUTXA

Jakak lehen postuan jarraitzen du sendo, Zabaletarekin batera, Binakako Pilota Txapelketan

Asier Imaz

Binakako txapelketako jardunaldi berri bat jokatu zen asteburuan, bigarren itzuliko lehenengo. Jaka-Zabaletak 22-16 irabazi zien Irribarria-Rezustari. Momentuko bikoterik indartsuena osatzen dute gipuzkoarrak eta nafarrak, eta sailkapen nagusian lehen postuan daude jokaturako zortzi partidetatik zazpi irabazita. Hurrengo partida Eibarren jokaturako dute, urtarrilaren 19an, Altuna III-Galartzaren aurka.

Aurrelari amezketarra bertan izango da eskumuturretik osatzen baldin bada. Izan ere, asteburuan ez zuen jokatzetik izan. Altuna III.aren lekua Elezkano II.ak hartu zuen, eta Galartza atzean zuela 22-18 galdu zuen Ezkurdia-Martijaren aurka. Irabazleek postu bat irabazi zuten sailkapenean, galtzaileek bat galdu zuten bezala. Ondorioz, Altuna III-Galartza hirugarren postuan daude zortzi jardunaldien ondoren.

Iñaki Artola eta Ander Imazek garaipena eskuetan izan zuten. 21nako berdinketan, ordea, txanpona Laso eta Albisuren alde erori zen. Aurrera begira, puntu garrantzitsuak ihes egin zien alegiarrari eta oiartzuarrari. Sailkapenean laugarren daude, baina zazpigarren bikotea garaipen bakarrera dute atzetik. Gora begira

SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

Jaka-Zabaleta	7-1
Ezkurdia-Martija	5-3
Altuna III-Galartza	5-3
Artola-Imaz	4-4
Laso-Albisu	4-4
Irribarria-Rezusta	3-5
Olaizola II-Urrutikoetxea	3-5
Bengoetxea VI-Mariezkurrena II	3-5

PROMOZIO MAILA

Agirre-Ezkiroz	7-1
Peña II-Aranguren	7-1
Elordi-O. Etxeberria	6-2
Salaberria-Garmendia	3-5
Egiguren-Erostarbe	3-5
Arteaga II-Urretabizkaia II	2-6
Alberdi-Salaverri	2-6
Zabala-Ruiz	2-6

jarrita, bigarren postua ere puntu bakarrera dute. Hurrengo partida, Mungian jokaturako dute urtarrilaren 18an, Olaizola II-Urrutikoetxearen aurka.

PEÑAK IRABAZI, URRETABIZKAIK GALDU

Jon Ander Peñak sailkapenean goiko postuetan jarraitzen du, Aranguren lagun duela. Bigarren postuan dago bikotea, lehenengoekin berdinduta. Asteburuan 22-15 irabazi zien Alberdi-Salaverri. Hurrengoan liderren aurka jokaturako dute.

Beñat Urretabizkaia ez zuen Arteaga II.aren laguntza handiegirik izan azken jardunaldian. Bikotea ez zitzaion fin ibili ikaztegiatarrari eta 22-11 galdu zuten Agirre-Eskirozen aurka. Hurrengo partidan Alberdi-Salaverri izango dituzte aurkari.



3.000 metroko proban parte hartu zuten Tolosa CF-ko beteranoak. ATARIA

Paula Del Pozo, lehen postuetan Zornotzan eta Elgoibarren

Alegiarrak bigarren postua lortu zuen Zornotzako krosean eta bederatzigarren Elgoibarkoan

Erredakzioa

Urtearen hasiera kros modalitatearen garaia izaten da atletismoan, eta Paula Del Pozo Tolosa CF-ko alegiarrak beste denboraldi batez postu nabarmenak lortu ditu Zornotzako zein Elgoibarko nazioarteko krosetan. Aurreko asteburuan jokatu zen Zornotzako, eta Del Pozo txapeldunorde izan zen 20 urte azpiko mailan. Asteburu honetan jokatu den Elgoibarko krosean, berriz, bederatzigarren postua lortu du maila berean.

Tolosa CF-ko beste atleta batzuk ere parte hartu dute bi kros horietan. Zornotzan, absolutu mailan Ander Etxeberria, Ander Garin eta Javi Rodriguez 31., 32. eta 59. postuetan helmugaratu ziren, hurrenez hurren. Elgoibarkoan, Ander Etxeberria (46.), Aitor Regillaga (56.) eta Unai Hernandez (78.) izan ziren parte hartzaileak.

EUSKADIKO TXAPELKETAK

Tolosa CF-ko hainbat atletek parte hartu zuten aurreko asteburuan Euskadiko pista estaliko txapelketetan. Proba konbinatuen txapelketan, Ander Aristik Espainiako txapelketara joateko 3. gutxienekoa lortu zuen proba konbinatuen 3.314 puntuekin.

Euskadiko txapeldunorde geratu zen. 3.000 metrotako gazte mailako txapelketan, berriz, Ane Martin 16 urte azpiko Euskadiko txapeldun bilakatu zen 3.000 metrotan eta bide batez Espainiako Txapelketara joateko gutxienekoa lortu zuen 10.59ko denborarekin. June Sudupek sei hilabete eta gero berriro lehiatu ahal izan zuen eta 11.53ko denbora egin zuen. 18 urte azpiko mailan, Unax eta Alain Odriozola anaia ere fin ibili ziren eta 10.15 eta 10.25 denborak lortu zituzten, hurrenez hurren.

Euskadiko beterano txapelketan, gizonetako 3.000 metroko proban lortutako lehen hiru postuak izan zen aipagarriena. Sergio Roman, Aitor Regillaga eta Unai Señoranez lortu zituzten, 9.11, 9.12 eta 9.16 denborekin, hurrenez hurren. Beste parte hartzaile hauek ere izan ziren: Mikel Rodriguez (9.36), Iker Manso (9.41), Javi Rodriguez (9.46), Iñaki Insausti (9.47) eta Asier Altuna (9.59). 800 metrotan Sergio Romanek errepikatu egin zuen eta 2.09ko denbora bikaina lortu zuen. 60 metrotan Angel Urangak 8.63 eta Migel Calahorrak 9.04 egin zuten.

Bestalde, asteburu honetan, pista estaliko aukera askeko jardunaldietako bat jokatu da, eta Tolosa CF-ko 50 parte hartzaile izan dira. Marka aipagarriena Lizeta Okomok pisuan lortutakoa izan da, 12.52 metrorekin, 20 urte azpiko Espainiako Txapelketan parte hartzeko gutxienekoa lortu baitu.

Tolosako kirolari aitortza egingo dion Kirol Gala bihar izango da

Leidor aretoan izango da ekitaldia, 19:00etan hasita, eta bost sari banatuko dira kirolari edo kirol talde onenaren atalean

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak herriko kirolari, kirol talde eta elkarten lana balioan jarri eta izandako lorpenengatik errekonozitu nahi ditu. Horretarako, bihar, urtarrilak 15, 19:00etatik aurrera, Tolosako Kirol Galaren edizio berri bat egingo da Leidor aretoan.

Aurtengo ediziorako ere, ohikoa den moduan, Tolosako kirol elkarte guztiek beren hautagaiak proposatu dituzte, bakoitzaren lorpenak adieraziz. Proposamen horiek kontuan hartuz, kirol elkarteek eta herriko beste hainbat eragilek bozkatu dute nortzuk diren kirolari onenaren sarirako eta etorkizuneko kirolari aipagarriaren sarirako kirolariak.

Ekitaldiarekin, kirolarien garaipenak azpimarratzeaz gain, udalak kirolaren beste balore batzuk sustatzen dituzten pertsonak eta eragileak ere errekonozitu nahi ditu. Kirolari edo kirol talderik onenaren atalean, bost sari emango dira: 14 eta 18 urte bitartekoen arteko neska kirolari onena eta mutil kirolari onena; 18 urtetik gorakoan artean neska kirolari onena eta mutil kirolari onena; eta guztien artean hautatutako kirolaririk onena. Horrez gain, kirol jarduera eredugarriari saria emango zaio, eta izendapen bereziak ere izango dira.

BERRIKUNTZAK SARIETAN

Sariei dagokionean berrikuntza bat egongo da aurtengatik. Izan ere, ohiko sariez gain, Kontuz! Kreatiboak taldeak egindako oroigarri berezi batzuk ere banatuko dira. Hiru dimentsiotan egindako poliedro formako oroigarria da. Kutxa baten gainean kokatuta dago, eta poliedro bakoitzak kirol balio ezberdin bat irudikatzen du: indarra, malgutasuna, esfortzua... Ohi bezala, diplomak, Tolosa&CO elkartearen dendetan erabiltzeko txartelak, bertako produktuekin osatutako Tolosako Azokako saskiak eta kiroldegiko bazkidetzak ere banatuko dira irabazleentzat eta izendatuen artean.



ASTEARTEA, 2020KO URTARRILAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 14

AGENDA

Erakusketak

Tolosa. Burattinien Mundu Miresgarria, Topic zentroan. Astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta asteburu eta jai egunetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Italiarren txotxongiloen tradizioak Europako pertsonaien eta maskaren aniztasuna aurkezten du. Erakusketa 70 lanez osatuta dago, eta eskularruen teknikaz gain beste teknika batzuk ere erabiltzen dituzten.

Tolosa. La importancia de estar erakusketa, Gko galerian. Luce artistak Tolosan eginiko lana ikusgai jarri du. Astegunetan 17:00etatik 20:30era eta larunbatetan 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era.

Tolosa. Origen. Moda, Tradizioa. Ja-sangarritasuna. Emaus fundazioak antolatuta. Sortzaile desberdinak, herrialde desberdinak, hainbat herrialdetako jantziak, hainbat herrialdetako etorkinak bateralan egiten,... ideiak, bizipenak, ohiturak eta hausnarketak. Topic zentroko Anbigu aretoan. Astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta igande eta jai egunetan 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Tolosa. Elloria - Tach Pollard erakusketa. Gama Art Toy Collective. Gko galerian. Astegunetan 17:00etatik 20:30era eta larunbatetan 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, eguneko berriak, Alain Rekondo telebista eta zinema adituaren tarteak, teknologiaren tarteak Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko informatikako ikasleekin, Patxadaz eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Gure Txokotik. Elkarrizketen saio. Gaurkoan, Iker Iriarterekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Elkarrizketa (Jon Zelestino)

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:15. Leihotik Begira (Leaburu-Txarama)

22:45. Valentin Malmasoro ile-apaintzaileari elkarrizketa tarteak

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Cecilia Bronte Posada. Koreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118..

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Egunean zehar erdi eta goi-mailako hodei batzuk ikusiko ditugun arren, giro lasai eta argiarekin emango dugu eguna. Haizeak hori bai, indarra hartuko du eta arratsaldean bolada zakarrak izango ditu, batez ere, haizeguneetan. Termometroak zertxobait igoko dira, eta 13 eta 15 gradu bitartean joko dute goia.



Bihar. Antzeko giroa izango dugu berriz ere. Nahiz eta, zeruia ia erabat estalirik mantenduko den egun osoan, erdi eta goi-mailako hodeiez, hauek ez dute euririk utziko eta beste egun batez giro aterti eta lasaia izango dugu. Haizeak goizean zakar joko du, arratsaldean zertxobait ahulduz eta termometroak antzeko balioetan kokatuko dira, berriro ere 13 eta 15 gradu bitartean joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ALDARRIKAPENEKIN JARRAITZEN DUTE

Eskualdeko pentsiodunek urteko lehen mobilizazioa egin zuten atzo, Tolosan. Alde Zaharrean manifestazio jendetsua egin zuten 250 bat herritar inguruk, euren aldarrikapenen alde borrokan jarraituko dutela gogoratuz. Era berean, herritarrak urtarrilaren 30eko greba orokorrean parte hartzera deitu zituzten. Euren ustez, pentsio publiko eta duinak defendatzeko erantzun eta bermerik onena hilaren 30eko mobilizazio orokorra da: «Guztiok gaude konprometituta mobilizazio horretan, pentsio publiko duinak lortzeko helburua baitute, bai eta, bizi baldintza eta soldata duinak eskuratzeko ere». ASIERIMAZ

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - COVIRAN
GRANADA**
partida ikusteko

Urtarrilak 19, 12:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**Ataria bertso
jaialdirako
bi sarrera**

urtarrilak 18,
18:00etan, Leidorren.